



DEBAKO UDALA



**DEBAKO HONDARTZA 4 URTERAKO OKUPATZEKO
ITSAS-LEHORREKO JABARI PUBLIKORAKO BAIMEN
ESKAERA, SURF ESKOLEN JARDUERETARAKO**



1. Debako hondartzaren antolaketa

Debako hondartzaren erabilera erregimena arautzen duen ordenantzak, 2022ko apirilaren 25ekoa GAO n argitaratutakoak, bere 5. Artikuluan arautzen ditu ur kirolak. Bertan zehazten da Udalak baimendutako eskolak bakarrik aritu ahal izango direla Debako Santiago eta Lapari hondartzetan, urte guztian. Gainera, Udalak alde z aurretik zehaztutako eremuetan murgilduko dira.

Eskola kopuru hori mugatzeko ahalmena baliatzen du, betiere ere Toki-araubideko legedian jasota dauden zuzeneko edo zeharkako kudeaketa modu edozeinetan, alde z aurretik dagokion baimena lortu ondoren, eta indarrean dagoen Itsasertzari buruzko araudiak dioena kontutan hartuta.

Azken lau urteetan, Debako hondartza n surf eskolak emateko Itsas-lehorreko jabari publikorako okupaziorako baimena izan dugu, zeinaren bitartez neguko denboraldian Debako udalak baimendutako bi eskolek ikastaroak eman ahal izan dituzten.

2. Okupazioaren berezitasunak

Okupazioa urte osoarako izango da eta motorrik gabeko uretako kirole tarako soilik. Deban bi surf eskola daude Yako surf eskola eta Ipar surf eskola eta biak Udal baimena dute surf eskolak emateko.

Planoan (1.eranskina) adierazten den eremua erabiltzeko baimena beharko genuke, 70 metro lineal urte osoarako.

3. Eskaera

Udalak baimendutako bi surf eskolek urte osoan surf ikastaroak emateko planoan ezarritako eremuak okupatzeko baimena.



DEBAKO UDALA

I.ERANSKINA

Escuelas de surf. zona a ocupar

